




Don Manuel Etxeberria

APAIZ HERRIKOI BAT

ARGAZKI ERAKUSKETA

Topalekua Udal Aretoa | 2026.09.28 - 2026.10.06 | ZALDIBIA



*Zaldibiako elizan Meza Berria eman zueneko, 1947.
Aita Joxe Mari eta ama Joxepa alde banatan dituela.*

*Azaleko argazkia:
Ume txiki baten bizikletan. Guaranda, 1954.*

Apaiza, abertzalea, argazkilaria...

Manuel Etxeberria Sukia (1922-1993)

Manuel Etxeberria Sukia 1922ko abenduaren 17an jaio zen Zaldibian, Zubimusu etxean. Handik laster joan ziren bizi izatera Arretxe etxera. Joxe Mari Etxeberria, Izar baserrikoa, eta Joxepa Sukia, Auntxita baserrikoa, zituen aita-amak.

Joxepa Sukia alarguna zen eta Joxe Mari Etxeberria ere bai. Joxepak aurreneko ezkontzatik bi seme zituen: Aureliano Jauregi eta Pontzio Jauregi (alaba txiki bat ere izan zuten, jaioberritan hila); Joxe Mari Etxeberriak ere seme bat zuen aurreneko ezkontzatik, Joxe Etxeberria. Bien arteko ezkontzatik sortu ziren, berriz, Manuel Etxeberria eta Antonio Etxeberria.

Manuel 1993ko uztailaren 26an hil zen, 70 urterekin, minbiziak jota.

Mutiko bixia omen zen Manuel txikitán, korrika, bizikletan eta pilotan abila oso. 12-13 urterekin Gasteizko Seminariora joan zen apaiz ikasketak egitera. 1947ko ekainean apaiztu zen han, Gasteizen, eta Meza Berria 1947ko uztailan eman zuen Zaldibiako Santa Fe elizan.

Apaizgintzan aritu zen lehenik Bizkaiko Dima herrian, gero Gipuzkoan Itsasondoko Urkian, eta handik Zaldibiara etorri zen. 1952an Ekuadorrera joan zen. Garai hartan Gipuzkoako Eliza Gasteizko diozesiaren barruan zegoen eta Ekuadorko Los Rios eskualdean zeukan Misioa. Inguruko beste apaiz euskaldun batzuekin batera joan zen Manuel Ekuadorra. Tartean zen bere lagun handia izan zen Jexux Dorronsoro atundarra.



Guarandan, 1957. Ekuadorreko lehenengo frontoian, Jai-Alain, gaztetxoekin.



Zaldibiako gaztetxoekin Aralar mendian, 1960 inguruan.

1958an itzuli zen Zaldibiara, nahi edo espero baino lehenago ziurrenik, istripu handi bat izan zuelako Los Riosen, kamioi batek azpian harrapatuta, hura konpontzeko lanetan ari zela. Bizkar hezurra oso kaltetuta ekarri zuen.

Zaldibian lau apaiz zeuden une hartan: Don Modesto Mendizabal, erretorea, Don Antonio Garmendia, Don Gabriel Amondarain eta Don Jose Antonio Osteriz laguntzaileak. Manuel etorri zenean, Jose Antonio beste leku batera eraman zuten. Zaldibian egin zituen apaiz laguntzaile gisa urte batzuk, 1966ko azaroan Ataungo San Gregoriora erretore gisa bidali zuten arte. Ataunen Joxe Miel Barandiaranekin batera aritu zen elizako lanetan. Azken urteak, berriz, Beasaingo Arangoiti Zahar Egoitzan eman zituen kapilau.

Ekuadorren zegoela, dagoeneko, agertzen zuten Manuelek Euskal Herriarekiko eta euskararekiko mira eta maitasuna. Ekuadorretik bidaltzen zituen argazki atzeetan ematen zuten esplikazioa beti euskaraz idatzita etortzen zen. Berrogeita hamarrek hamarkadaz ari gara, artean euskara estandarizatu gabe zegoen, eta inork gutxi idazten zuten euskaraz. Manuelek txukun idazten zuten ordurako. Eta argazkietan erakusten du, baita ere, nola saiatzen zen hango gaztetxoei hemengo dantzak eta musika transmititzen. Ezpata dantza eta horrelakoak dantzatzen agertzen dira gazteak eta baita txistua jotzen ere. Manuelek bere erara bideratuko zuen Elizak helburu zuen "ebanjelizazioa", jabetuta, espainiar kolonizatzaileek zer nolako sarraskiak egin zituzten herrialde haietan. Herritarrek ez omen zuten beren iragan hura ahaztuta eta askok adierazten omen zieten kolonizatzaileekiko zuten amorrua.

Zaldibiara itzuli zelarik, 1958an, apaizgintzarekin lotutako lanei ekin zien eta, aldi berean, herriko gazteen artean euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna sustatzeko lanari. 1960ko hamarkadan, Frankoren diktadurak euskal kutsuko adierazpide guztien aurka gogor jotzen zuenean, hasia zen Euskal Herriari giro berri bat pizten. Ezkutuan, klandestinitatean, gerra galtzaileak antolatzen hasiak ziren ito-



Cuatro-Cuatro bere kotxe kuttuna konpontzen, 1960 inguruan.

tzear zuten hizkuntza eta kultura berpizteko asmoz. Hortxe ziren lehenengo ikastolak, gau-eskolak, mendi eta kultur elkarteak, herritarrak lozorrotik atera nahian. Eta elizak, edo hobeto esanda, apaiz batzuek eta eliztar batzuek rol garrantzitsua jokatu zuten garai horretan, elizaren nolabaiteko “babesa” aprobetxatuz. Manuel Etxeberria izan zen apaiz horietako bat.

Manuelek Zaldibiako gazteei txistua erakusten zien, mendi-irteerak egiten zituen beraiekin, antzerkiak...; harreman estua zuen gazteekin. Gazte haien artean arrasto handia utzi zuen Manuelek eta oraindik oroitzapen gogoangarriak dituzte. Haiek kontatuta dakigu elizako saloietan “Gora Euskadi bizi bedi...” jotzen ari zirela, txistuz, nola Don Modesto erretorea joan zitzairen sutan esanez, “Estáis profanando las dependencias parroquiales. Coged vuestras pertenencias, entregad las llaves y fuera de aquí”.

Traste guztiak hartu eta han jaitsi omen ziren plaza erdira, danbolinak lurrean utzi eta korroan gelditu geratuz, jende guztia begira zutela. Eta hurrengo igandean, eguerdian, Guardia Zibila udaletxeko salan, txistulari gazteak banan bana deituz eta galdekaturik ea nork erakutsi zien abesti hori. Don Manuel nahi omen zuten egin horren ardura-dun. Eta haiek, ezetz. Entzuna zutela kantua eta jotzeko gauza zirela inork erakutsi gabe. Ez zuten sinesten. Ez zela posible inork erakutsi gabe abesti bat jotzea, zioten.

Horrela joan ziren guardia zibil haiek, eta gazteak kalera lasai. Baina gertatuaren berri Manuelek jakin zuenean, gorabehera hura gehiago ez bihurritzeko, zuzenen gobernadorearengana jotzea erabaki omen zuen, CAFen kapilau zen Jexux Dorronsoro lagunaren bidez zita hartuta. Gobernadorearen ordezkioak hartu zituen. Eta gazteak, txistulari jantzita joanak, kaltzontzilotan etxera etorri beharko zuten beldurrez, liburuak eta lapitzak opari jaso, eta Igeldon ospatzen ibilita, bueltatu omen ziren herrira, plazara, Don Modestoren etxe atarira.

Asko dira garai hartako pasadizoak, orduko gazte haiek oraindik gogoan dituztenak.



Harmonioa jotzen.

Giroa beroa zen benetan. Tentsio handiko garaiak ziren. Francoren diktadurapean gozo bizi zirenen eta haien kontra altxatu nahi zutenen artean tirabira handia zegoen. ETA ere hasia zen lehen ekintza batzuk egiten eta errepresioa gogorra zen. Manuelek ere larrutik ordaindu zuen abertzale izatea. Bizimodua asko zaildu zioten orduko elizgizonek, Don Modesto buru zela, eta, azkenean, lekuz aldatzea eskatu zuen presio hari aurre egin ezinda. Herritar askok babestu zuten Manuel, eta ekintza ikusgarriak egin zituzten herrian gelditu zedin eta Don Modesto bidal zezaten: Meza Nagusia boikoteatu atarian geldituta edo elizatik aterata, beste herri batera joan konfesatzera..., baina gotzaiak hitz onez gain ez zuen erabaki sendorik hartu eta Manuelek amore eman zuen, osasuna galduko ez bazuen. Horrela joan zen Ataungo San Gregoriora erretore.

Musika zen bere afizio handienetakoa. Organoa, soinua, txistua... instrumentu asko jotzen zituen eta baita irakatsi ere. Euskal kultura maite zuen, oro har, antzerkia, kantua, dantza... Antzerki taldea ere osatu zuen Zaldibian eta saloietan antzoki aretoa muntatu zuen. Hobeto ikusi ahal izateko, egurrezko malda bat eraiki eta haren gainean eserlekuak errenkadatan jarri zituen, eta eszenatokia bi oihal beltz handirekin jantzi. Obra asko antzeztu zen hor, herritar neska mutil gazte osaturiko taldeekin, beti. Eta antzezlan horien aukeraketa eta entseguak ere Don Manuelek berak zuzendu eta bideratu zituen urte askotan. Baina, antzerkiz aparte pelikulak ere proiektatzen zituen bertan. Ordiziako Etxezarreta zinema-koekin egindako akordioaren bidez, Ordizian ematen zituzten pelikula berak jarzen zituen Zaldibian ere. Pelikula bakoitzak bi bobina izaten zituen, eta Ordizian lehenengoa ematea amaitzen zutenean, motoz Zaldibiara ekartzen zuten. Bigarrenarekin berdin, gero, berriro denak Ordiziara itzultzeko. Horretarako, berandu-xeago hasten zen Zaldibian pelikula emanaldia.



Zaldibian, Ekuadorretik bueltan, 1958.

Esku onekoa ere bazen eta pazientzia handia zuen edozein aparatu, tresna, bizikleta, auto, erloju, piano... askatu, pieza guztiak sakabanatu, konpondu eta berriro osatzeko. Ilobek kontatzen dute haiek festetatik ordu txikitik etxeratzen zirenean, hantxe aritzen zela Manuel amonaren sukaldean, argi txikiren baten azpian jarrita, erlojuren baten pieza ñimiñoak konpontzen. Urte askoan bera izan zen Zaldibiako kanpandorreko erlojuaz arduratu zena eta, ondoren, San Gregoriokoaz.

Tresnekiko eta jendearekiko pazientzia hori ez zuen, hala ere, bere buruarekiko hartzen, eta bolada zailak pasatu zituen Manuelek bere buruarekin borrokan, maiz tristurak jota ere bai.

Pilota ere oso gustukoa zuen. Pilotari ona zen, eskuz bezala palaz, eta saio handiak jotzen zituen apaiz lagunekin adinean aurrera zihoala ere. Amore nekez ematen zuen horietakoa omen zen, hurrengo egunak gerriko minez pasako bazituen ere, ondorio larriak utzi baitzizkion bizkar hezurrean Ekuadorren izandako istripuak.

Eta pilota bezain maitea zuen argazkigintza, egun hauetan Zaldibian egiten ari garen erakusketak adierazten duen bezala. Argazkiak atera eta errebelatu egiten zituen Arretzeko txoko batean zuen laborategi txikian. Era guztietako argazkiak ateratzen zituen, bakarkakoak, familiakoak nahiz ezkontza edo ospakizunetakoak.

Azken urteak ez ziren gozoak izan Manuelentzat. Osasun arazoez gain, euskal gizartean gertatzen ari ziren aldaketa asko, hizkuntza, erlijio, politika nahiz beste alor batzuetan, ez zituen gogoko, ez zen haiekin identifikatuta sentitzen eta horrek halako sumindura bat sortzen zion. Hala ere segitu zuen gizon eskuzabala izaten, etxez etxe gaixoak bisitatzen eta beharrean zegoenari laguntzen.



Anaia Antonioren, 1990 inguruan.



ARGAZKI ERAKUSKETA

Don Manuel Etxeberria

APAIZ HERRIKOI BAT



2026ko irailaren 28tik urriaren 6ra



Topalekua Udal Aretoa | **ZALDIBIA**

Antolatzailea



JUAN INAZIO
IZTUETA
ELKARTEA

Babeslea



ZALDIBIAKO
UDALA